

Gorra

ozentasun-galeran datza gorketa. Hein batez bederen, eta alde, →*bokal* baten gorketa ere gerta daiteke.

Hona hemen *ukipen*→*asimilazio* gertatzen den kasu bat; edo-ta, bestela esateko, *baldintzatuak* esan daitezkeen →aldaketa fonetikoak.

Euskararen alorrean (ikus *Euskal Fonetika*), *gorren* eta *ozenen* arteko →neutralizazioak —lehenengoan alde →txistukarien ondoren— adibide ugari eskaintzen du *kontsonante-gorketa* horretaz.

Adibidez: [estut], [eskero].

Gorra

sordo / *sourd* / *voiceless*

Gorra deritzon →foneman, →ahots-korden dardararik ez dago: glotia itxirik dago, birketatikako airea ez da laringean barrena igarotzen, eta beraz jatorri horretako →soinu-uhinik ez dago. Entzuten dena, hortaz, ondoko edo aurreko →bokalaren ebakunean gertatzen da. Eskuarki gutxiago izaten dira fonema gorrak, fonema →ozenak baino. Euskarari dagokionez. bai /p, t, k/ hirukotea, bai /z, s, x/ hirukotea, →kontsonante gorrez osaturik daude.

Grafema

grafema / *graphème* / *grapheme*

Grafema →izkribakera-sistema bateko elementu →abstraktu bat da, →alografo deituriko formen bidez zertzen dena, alografoen marraketa →sistemako beste elementuen menpean dagoelarik: grafema, hortaz, →letrari dagokio izkribakera alfabetikoan, alografoak majuskula, minuskula, kurtsiba etab. diren bitartean. →Fonemak mintzaira mintzatuan bezala, grafemak izkribakeran bigarren →artikulazioko unitateak dira; →morfema grafikoak dira lehen artikulazioko unitateak.

Grafia

grafia / *graphie* / *spelling*

→Hitz edo →esakune baten irudikapen idatziari esaten zaio grafia. Hitz baten ortografia oro grafia da: horrela, *au hau*-ren orde grafia okerra da, baina grafia hala ere. *Zaku* hitza →alfabeto fonetikoan [saku] bezala transkribatzen denean, hori ere grafia bat da.

Gramatika: ulerbide batzuk

A. *Gramatika, teoria gisa*

Lehen-lehenik bi gauza hauek berezi behar dira: alde batetik, gramatika zera da →erregela→sistema definitua eta bar-

neratua; hori dela eta, gramatika hori →konpetentzia duen →hiztunak hizkuntza horretako perpausak sortzeko eta ulertzeko duen dohaina da. Baina badago gramatikaren beste ulerbide bat ere: hizkuntzalariak, hizkuntza horretako perpausak (eta berauei dagokien egiturazko azalpidea) finkatzeko, eraikitzen duen erregela-sistema.

Jakina, definizio hauetan gramatika sortzailea dugu gidari; eta berori da →axioma bidezko gramatika formalen artean ezagunena, eta hizkuntza baten perpaus gramatikalen definizio berrizkari bat ematen du.

Zehazki mintzatzekotan, gramatika bat axioma-sistema hedatu bat da (alegia, bi →hiztegi edo oinarrizko →alfabeto ditu: →laguntzailea edo kategoriala: NP, VP, eta abar; eta irteerazkoa: →lexemak eta gramatika→hizkiak; eta erregelak oro →bitarrak dira eta norabidebakarrak. (X x Y → X eta Y). Hitz batez: erdi-Thue deritzon sistema bat. Axioma bakarra P da (perpaua); eta erregela-multzo batek sortzen ditu irteerako kateak (teoremak). Erregela horiei ezartzen zaizkien baldintzek mugatzen dituzte ere azpi-sailak: →textuinguruaren arabera-koak edo textuinguruz kanpokoak, zuhaitzaireak eskuinetara edo ezkerretara...

B. *Gramatika eraikuntza gisa*

Matematikan sortu da ulerbide hau (constructium): →sinbolo-konfigurazioen bitartez eragiten dute erregelek. Amerikar estrukturalismoa, →Hjelmslev-en →glosematikatik urrunduz, ulerbide honi hurbildu zaio.

Bi ikuspegiok eman ditu aintzakotzat →Chomsky-k, eta hirugarren ulerbide bat erantsi du:

C. *Gramatika, automata gisa*

1963an, Chomsky-k gramatika formaleko moten ikuspegi orokorra eman zuen, baita hauei datxezkien automatena ere. Honen berri zehazkiago jakin nahi izatekotan, ikus Gross/Lentin, 1970 (Notions sur les Grammaires Formelles, Paris) eta Hopcrpft/Ullman, 1969 (Formal

Languages and their Relation to Automata).

→*Bloomfield*-en arragoko →estrukturalismoan, gramatikaren →funtzioa gaurko →hizketan aurkitutako emarien deskribapena da. *Praga*-koan, berriz, hizkuntzaren balio funtzionala azpimarratzen da; gramatika ez da →banaketazkoa soil-soilik, baina ezta →semantiko hutsa ere, ohizko alderditik. *Kopenhaven*-koan, azkenik, hizkuntzaren pleguan datzan algebra izkurtua eta harreman-sistema azaltzea da helburu. Estrukturalismoaren hiru ikusmolde horiek honako hau dute elkarrekin: hizkuntzaren ikuspegi aldaezina. Ezin ditzaiteke beraren alderdi sortzaileak eta dinamikoak azal.

Antzinatean guztiz helburu *didaktikoak* zituen gramatikak (testu klasikoan irakaskuntza, erretorika-hezkuntza, e.a.). Hori dela eta, oso joera arauemailea zeukan. Haren azterketan, logikaren eta ontologiaren eragina gauza nabarmena da.

Txillardegi

Gramatika-kategoria

Hizkuntz eskolen arabera hedadura desberdina du kontzeptu honek. Ohizko gramatikak, Aristotelen «Kategorien Tratatuko»tik hartzen du. Errealitateari datzekion tresna den aldetik, kategoria metafisikoak isladatzen ditu hizkuntzak bere hitz-motetan (modi significandi): izenek →substantzia adierazten dute, alegia, objektu bakunak; →adjektiboek, berriz, nolakotasunak; eta abar. Kategoria horiei, lexikozkoak, perpausaren atal deritze.

Beste alde batetik, hizkuntzan bertan ere, errealitatearen beste gauzaki bat den aldetik, substantzia/akzidente dikotomia isladatzen da; eta substantzi gisako edo itxurakoei, gramatikazko akzidenteak dagozkie, hauek izenaren →paradigma (→generoa, →zenbakia, →kasua), edo →aditzarena (→denbora, →modua, zenbakia, →persona), mugatzen dituztelarik. Beste motatako hitzen sailkapenez agertzen den zalantzasunaz, ikus *Adjektiboa* goiburua, adibidez. Gainerako hitz-motak, bigarren mailakotzat jotzen ziren (→adber-

bioa, →preposizioa, →juntagailua eta abar), eta eskuarki ez zitzairen adierazplegurik aitortzen, →funtzio gramatikal soil bat baizik. 1948an Bröndal-ek kategoria horiek ohizko filosofiaren arabera funtsatu nahirik egin zuen saialdia, horretara («perpausaren atalak» litezkeen aldetik), ikerbide horien hutsalaren adibide argitutzat eman daiteke.

Hizkuntzalaritza berrian hiztegizko gramatika-→kategoria, batetik, hitz-motak, alegia (→izena, aditza, adjektiboa, preposizioa eta abar), eta sintaxizkoak, bestetik (izen-sintagma IS, aditz-sintagma AS, preposiziozkoa PS, eta abar) berezten dira. Gramatika →sortzailean, zuhaitz sintagmatikoetan, adabegien txartel gisa erabiltzen dira kategoria horien izenak; kategoria gramatikal lexikalak ez dira hedagarriak (I, A, Adj, Adb, Prep, eta abar), eta azpikategorizazio-→erregelatan eta →txertakuntza lexikaletan →sinbolo horiek matrizezko →ezaugarriz edo lexemaz ordaintzen direlarik ez dira geziaren ezker aldean baizik agertzen.

Gorago gramatika-akzidente bataiatu ditugun horiek, hein batez, →matrize edo sinbolo anizkoitz horien ezaugarritzat hartzen dira hemen, beroriek txertakuntza prestatzen eta morfologi output delakoa markatzen dutelarik: + I, + mask, + pl, + kasu 3...

Denbora, aldiz, hiztegizkoa ez den kategori sinbolo gisa erabiltzen da maiz, gero gramatikazko →formantetan hedatua (→iragana, →burutua, eta abar); eta moduak oraino ere arazo larriagoak aurkezten dizkio gramatika honi.

Beste alde batetik, Gramatika Sortzailearen molde standardean ez dago batere garbi →hiztegi eta sintaxi-kategorien arteko harremana; hau da, esate baterako, I eta IS-aren artean dagoen funtsezko harremana.

Kategori gramatikan, aldiz, agerikoa da harreman hori, eta →sintaxi-kategorien mugatzaile gisa defini daiteke. Sintaxi-kategoria horietako bakoitzak badu sintaxi bidez aztertu ezin den zenbait elementu adierazgarri; eta sintaxizko eragiketen helburua, hain zuzen, klase ho-